



2013/02/01eko prentsa-oharra

ESKAINZA IMMOBILIARIOARI BURUZKO ESTATISTIKA 2012ko 4. hiruhilekoa

2011ko laugarren hiruhilekotik 2012ko laugarrenera, Euskal AEan etxebizitza erabiliaren metro koadroaren prezioa % 7,2 jaitsi da eta etxebizitza libre berriarena % 0,7.

Higiezin agentziek 11 hilabete behar dute batez beste etxebizitza bat saltzeko.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako 2012ko laugarren hiruhilekoko etxebizitzaren eskaintza estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitzaren metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 3.565 eurokoa da; % 3,2 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko eta % 7,2 izaera hiruhileko berarekiko. Etxebizitza libre berrien prezioak, bere aldetik, 3.742 euro metro koadroa, aldaera txikia du, % 0,3 gehiago, aurreko hiruhilekoarekiko, eta izaera hiruhileko berarekin alderatuta % 0,7 jaitsi.

Gipuzkoan, agentziek salgai eskaintako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 2,6 jaitsi da azken hiruhilekoan, eta % 9,8 2011ko laugarren hiruhilekoarekiko alderatuz gero. Halaber, Araban % 2,4 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 8,4 2011ko laugarren hiruhilekoarekiko. Bizkaian, % 4,0 murriztu da prezioa aurreko hiruhilekoarekiko eta % 4,4 12 hilabeteotan.

Vitoria-Gasteizen erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 2,4 jaitsi da azken hiruhilekoan eta % 8,4 azkeneko urtean; era berean, Donostian prezioa % 2,1 eta % 5,1 murriztu da azken hiruhilekoan eta azken urtean, hurrenez hurren. Bilbon jaitsi egin dira eskaintza-prezioak, % 3,4, azken hiruhilekoan eta % 2,4 azken hamabi hilabeteotako bilakaera kontuan izanik.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezin agentziek adierazten dute saltzaileek % 14,9 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du % 0,3 gutxitu dela azken hiru hilabeteetan erregistratutakoarekiko, baina aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 2 gehiago.



Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa 3.742 euroren bueltan dabil, % 0,3 gehiago aurreko hiruhilekoarekiko; baina urtebeteko epean % 0,7ko jaitsiera metatua izan du.


Etxebizitza libre berrien metro koadroaren eskaintza-prezioa jaitsi egin da Gipuzkoan; bai aurreko hiruhilekoarekiko, % 1,2, bai iazko laugarren hiruhilekoarekiko, % 5,0. Araban metro koadroaren prezioak % 0,6 egin du gora azken hiru hilabeteetan, baina % 0,3ko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean. Bizkaian, bere aldetik, metro koadroaren prezioa igo egin da; bai aurreko hiruhilekoarekiko, % 0,9 gehiago, bai iazko hiruhilekoarekiko, % 1,1 gehiago.

Etxebizitza librearen metro koadroaren prezioa % 5,5 murriztu da Donostian azken hamabi hilabeteetan.

Gauza bera gertatu da Bilbon, % 4,8, eta Vitoria-Gasteizen, % 1,7. Azken hiruhilekoan etxebizitza librearen metro koadroaren eskaintza-prezioak % 4,5 egin du behera Donostian. Bilbon, berriz, mantentzen da, eta ea gauza bera Vitoria-Gasteizen, % 0,1 gehiago.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 6.100 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 2.

Etxebizitzaren m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2012. Euskadiko AE.
Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitzaren eskaintzari buruzko estatistika

EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskaintakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.



Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jarritako batez besteko eskaintza-prezioa 302.200 euro izan da. 2012ko laugarren hiruhilekoan, % 0,2 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 2 aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.

Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa 309.500 euro da; etxebizitza libre berriak baino 7.300 euro gehiago balio du, hots, azken hiruhilekoan baino % 3,7, 12.000 euro, gutxiago eta % 9, 30.100 euro, azken 12 hilabeteetan.

Araban etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak % 0,3 igo dira azken hiruhilekoan, baina % 2,2 jaitsi dira azkeneko urtean. Etxebizitza erabiliaren prezioa, berriz, batez beste % 3,1 jaitsi da, azken hiru hilabeteetan; eta % 10, azken urtean. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 274.200 eurokoa da, eta erabiliarena, 242.200.

Bizkaian laugarren hiruhilekoan 303.500 euroan eskaini da etxebizitza librea. Aurreko hiruhilekoan erregistraturiko prezioa mantentzen da, % 0,1 gehiago, baina 2011ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuz gero % 0,8 jaitsi da. Erabilitakoen prezioa jaitsi egin da, % 4,9, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz eta % 8,8 azken urtebetean. Lurralde horretako etxebizitza erabiliaren egungo batez besteko prezioa 314.200 euro inguru da.

Gipuzkoak, berriz, eutsi egin die etxebizitzaren prezio garestienei; etxebizitza libre berriak 312.500 euro balio du, eta bigarren eskukoak, 352.400 euro. Lehenengo etxebizitza motaren prezioa % 1,1 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta bigarrenarena, % 2,2. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berrien prezioa % 4,0 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoa, % 7,1.

Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 29.700 euro jaitsi zen Bilbon; 13.600 euro, Donostian; eta 8.300 euro Gasteizen.

Azken hamabi hilabeteetan higiezin agentziek eta sustatzaileek % 7,8 jaitsi dute Bilboko etxebizitza libre berriaren prezioa; Donostian, % 3,3 jaitsi dute; eta Gasteizen, % 2,9.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 0,8 jaitsi da Bilbon, % 0,2 Vitoria-Gasteizen eta % 1,8 Donostian. Batez besteko prezioa 400.800 euro da Donostian, 350.900 euro Bilbon, eta, baxuena, 281.900 euro, Vitoria-Gasteizen.

Bestetik, erabilitako etxebizitzaren prezioa ere jaitsi egin da azken hiruhilekoan: 353.700 euro, eta % 4,5 gutxiago Bilbon, 245.000 euro eta % 3,1 gutxiago Vitoria-Gasteizen, eta 543.700 euro eta % 1,3 gutxiago Donostian. 2011ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Bilbon batez besteko prezioa % 11,1 jaitsi



da, eta Vitoria-Gasteizen % 10,0. Donostian, ordea, prezioek % 1,1 egin dute gora azken urtean.

Alokatzeko etxebizitza libreen batez besteko errenta 856 eurotan dago, eta babestutakoena – BOEak eta etxebizitza sozialak –, 345 eurotan.

Etxebizitza librearen kasuan aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa negatiboa izan da, % 1,6 gutxiago; eta iazko lehenengoko hiruhilekoarekin alderatuta % 4,5ko jaitiera. Babestutako etxebizitzaren batez besteko alokairua % 3,3 jaitsi da azken hiruhilekoan; % 23,6 igo da, ordea, azken urtean.

Sektore babestua – BOEak eta etxebizitza sozialak – 114.500 euroko batez besteko prezioan ari dira saltzen etxebizitzak –1.585 euro metro koadro erabilgarri bakoitzeko –. Etxebizitza horien metro koadroaren batez besteko prezioak % 1,5 egin du gora azken hiruhilekoan, eta 2011ko hiruhileko berarekin alderatuta, % 3,5.

Higiezinen agentziek 11 hilabete behar dute batez beste etxebizitza bat saltzeko; duela urtebete baino bi hilabete gehiago.



HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2012ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/Etxeb. soziala	1,585.4		23.0	1.5	53.2	3.5
	Berri librea	3,742.1		12.5	0.3	-27.3	-0.7
	Erabilia	3,564.7		-119.3	-3.2	-277.0	-7.2
Araba	Berri librea	3,426.6		20.7	0.6	-11.8	-0.3
	Erabilia	2,960.7		-73.6	-2.4	-272.1	-8.4
Bizkaia	Berri librea	3,845.3		35.4	0.9	43.2	1.1
	Erabilia	3,600.3		-148.4	-4.0	-166.1	-4.4
Gipuzkoa	Berri librea	3,682.3		-44.1	-1.2	-193.9	-5.0
	Erabilia	3,966.0		-106.3	-2.6	-429.3	-9.8
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) EREDUZKO ETXEBIZITZA	3,378.1		1.9	0.1	-69.6	-2.0
Berria librea	Gasteiz	3,589.4		3.3	0.1	-61.5	-1.7
	Bilbo	4,431.2		0.9	0.0	-223.5	-4.8
	Donostia	4,569.7		-214.2	-4.5	-268.4	-5.5
Erabilia	Gasteiz	2,997.0		-74.5	-2.4	-274.1	-8.4
	Bilbo	4,148.3		-144.0	-3.4	-100.8	-2.4
	Donostia	5,416.1		-114.3	-2.1	-288.8	-5.1
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/ Etxeb. soziala	114.5		0.8	0.7	2.5	2.2
	Berria librea	302.2		-0.6	-0.2	-6.1	-2.0
	Erabilia	309.5		-12.0	-3.7	-30.7	-9.0
Araba	Berria librea	274.2		0.9	0.3	-6.1	-2.2
	Erabilia	242.2		-7.8	-3.1	-26.9	-10.0
Bizkaia	Berria librea	303.5		0.2	0.1	-2.3	-0.8
	Erabilia	314.2		-16.0	-4.9	-30.2	-8.8
Gipuzkoa	Berria librea	312.5		-3.6	-1.1	-13.2	-4.0
	Erabilia	352.4		-8.0	-2.2	-27.0	-7.1
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Guztizkoa	39,542	100.0	106	0.3	-5,101	-11.4
	BOE berria/Etxeb. soziala	4,180	17.8	-304	-6.8	-2,665	-38.9
	Berria librea	5,738	19.4	-20	-0.3	189	3.4
	Erabilia	26,985	51.2	308	1.2	-2,897	-9.7
	Soziala/Librearen Alokairua	2,640	11.5	121	4.8	273	11.5
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO ERRENTA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	345.1		-11.6	-3.3	66.0	23.6
	Librea	856.0		-13.9	-1.6	-40.3	-4.5
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN BATEZ BESTEKO HILABETEA		11.0		0.9	9.5	2.2	25.4
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentaje puntutan	Ald %	Aldea portzentaje o puntutan	Ald %
EAE		14.9		-0.3	-1.7	2.0	15.1
Araba		7.8		1.1	15.9	3.1	64.5
Bizkaia		14.7		-1.6	-9.9	2.3	18.3
Gipuzkoa		15.9		0.5	2.9	1.6	11.2

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskaintakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Ohar metodologikoa

2012ko laugarrenengo hiruhilekoko datuak 174 higiezin-agentzik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 164 sustatzailek osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarrizketetatik atera dira. 2011n igo egin da informazioa ematen duten agentzien kopurua. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskaintako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorak ateratzen dira, ausazko aldaketak gutxiagotzeko

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Estatistika Organo Bereziaren arduraduna

Tel.: +34-945-01 64 78 Fax.: +34-945-01 97 42

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse113x/eu/>

WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse111x/eu/>